



❖ KONTZERTUA

Kantuz Abesbatzak eta Musika Bandak kontzertua bihar

Kantuz Abesbatzak eta Musika Bandak kontzertu sakroa emango dute bihar Milagrosa ermitan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Guztira 11 kanta dituzte eskaintzekoak: lehen zazpi kantak Kantuzek abestuko ditu; hurrengo biak Musika Bandak joko ditu eta azkeneko biak abesbatzak eta bandak batean jo eta kantatuko dituzte. ||

❖ CHILLIDA LEKU

Pello Ramirez bihar Chillida Lekun

Pello Ramirez akordeoi eta biolontxelojole ordiziarra entzuteko aukera izango da ostiralean Chillida Leku museoan. *Haize Oihalak* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak erosi daitezke www.begira.com web orrian edota museoan bertan. Arratsaldeko 20:00etan hasi da. ||

◆ SASKIBALDIA

Urte Zaharra III. torneo kiroldegian

Urte Zaharra III. torneoa jokatu dute gaur eta bihar Hernaniko saskibaloi taldeek Atletiko SS eta La Salleren kontra. Gaur Atletikoren kontra ariko dira: 16:30etan alebinak; 18:00etan, infantilak; eta 19:45etan, lehen taldeko juniorrak. Bihar ordu berean dira partidua, baina, La Salleren kontra. ||

❖ IPUI ORDUA

Ipuiak gaur Biterin

Lur Korta Ipui kontatzen izango da gaur goizean Biterin, udal liburutegian. Goizeko 11:00etan 3-4 urteko haurrentzako ariko da ipui kontatzen eta 11:30etan 5-7 urte arteko haurrentzako. ||


Hilerriko sarrera txukunduko dute baina ez da nitxo eta panteoi gehiago egingo momentuz

Gaurko Gobernu Batzarrean eztabaidatuko da hilerriko obra hauek egitea eta kontratazio espedientea. Bestetik, Plenora joango da gaur 2005eko lan hitzarmena.

HILERRIA haunditzeko proiektuaz hitz egingo dute gaur Gobernu Batzarrean. Hilerria haunditzeko obra aspalditik eztabaidatzen ari den puntua da eta momentuz, aurreneko fase honetan, sarrera txukunduko dute batez ere. Hilerria haunditzeko 2000garren urtean egindako proiektuak jasotzen zuen 150 panteoi eta 600 nitxo berri egiteko asmoa. Jose Antonio Cuesta, Herri Lanetako Zinegotziak adierazi du gaur egun ez dagoela hainbeste demandarik eta jendeak gero eta joera haundiagoa duela gorputzak intzineratzeko. Cuestak dio hilerria haunditzekotan gaur egungo beharrei egokituta egingo litzatekeela, bigarren fase batean.

725.0000 euroko aurrekontua Hilerria haunditzeko aurreneko fase honek 725.000 euroko aurrekontua du. Zehazki egingo dena da sarrera urbanizatu eta bertan hiru eraikin berri jartzea: lurperatzailearentzat bulegoa eta orain arte ez zeuden zerbitzuertarako eraikin bat; bestea bi gorpu gordetzeko belatorioa; eta hirugarrena gorpuak garraiatzeko makina gordetzeko eraikina. Horrez gain, hilerriko bide nagusian dauden harri txintxarrak estali eta bidea asfaltatuko dute. Gerra Zibilean fusilatutakoen omenez jarriko den monumentuarentzat ere lekua egokituko dute. Monumentua aurrerago jarriko da.

Obra hauek egiteko proiektua subastan kontratatuko da. Cuestak espero du bi hilabete eta erdian obrak hastea eta 6 hilabete irautea. Irailerako bukatuta egotea espero du beraz.



Hilerriko sarrerako plazan egingo da lanik gehiena.

Bigarren fasea

Cuestak dio inkesta bat egin zutela bizilagunen artean eta 30 panteoi berriren beharra izan zela galdetegi horren emaitza. Beraz bigarren fase batean egingo lirateke panteoi horiek, intzineratutako gorpuentzako txokoak eta hainbat nitxo.

Gobernu Batzarreko beste puntuak

Gobernu Batzarrean hitz

egingo da baita ere 2006ko lan egutegiaz eta Izeneder-Bentaxuriko bideko zorua berrietzeko obrak kontratatzeke espedientea ere onartuko da.

2005eko lan hitzarmena

Plenoa ere izango da gaur Udaletxean 10:00etan eta bertan hitz egingo da 2005eko Udaleko lan hitzarmenaz. Hitzarmen hau EAE mailakoa da eta urtean zehar eztabaidatzen aritu dira administrazioko or-

Zentroan ordu erdiz aparkatzeko 22 plaza berri

UDALAK aurrikusi du zentroan ordu erdiz aparkatzeko 22 plaza berri jartzea. Aparkamenduak dohainik izango dira. 14 plaza jarriko dituzte Urbietan kalean, taxi parada atzean eta Biteri atzekaldean. Beste 8 aparkamenduak Elkano kalean jarriko dituzte. Aparkamendu hauek den-den ordutegia izango dute: goizeko 08:00etatik 13:00-etara eta arratsaldeko 17:00-etatik 20:00etara.

Aparkamendu hauek ondo funtzionatzen badute gauza bera egingo dute Gudarien plaza, Atzieta, Izpizua eta Txirrita kalean.

Antxon Costa zinegotziak proposatutako sistema honen asmoa da iraupen gutxiko aparkamenduei erraztasunak jartzea, aparkamendu bat kotxe batek baino gehiagok erabili ahal izatea, enkarguak egiteko.

Proposamena Udaltzaingo eta Trafiko Batzordean aurkeztu du Antxon Costak. Orain 15 eguneko epea irekiko da bizilagunek alegazio eta proposamenak aurkeztu ahal izateko, onartu aurretik. ||

dezkarri politikoak eta sindikatuak, Eudelen bidez. Abenduaren 19ra arte ez dira adostasunera iritsi. Orain Udalek onartu beharko dute lan hitzarmena. ||

ORDUTEGIA
GOIZEAN: 8:00 ~ 14:00
ARRATSALDEAN: 16:30 ~ 20:00

NAGUSIA 36 943 550 489

OKINDEGIA • JANARIDENDA

Zure eguneroko beharrei erantzuteko, hemen gaude.

Kale Nagusia 19
Tel.: 943 55 23 98
HERNANI

Egunero
Menuak
8,50 €

Kardaberaz, 11
tf: 943555724

☎ **TELEFONOAK** **Taxiak:** 943 550093 **Udaltzaingoa:** 943 333288 **DYA:** 943 464622
Autobusak: 943 556662 **Anbulatorioa:** 943 006666 **Jokalari anonimoak:** 943 331103
Alkoholiko anonimoak: 943 331103 **FARMAZIAK** **Egunez: Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793
Gaez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

Emakume bat 2004ko maiatzean Nafar kalean jasandako erasoaren inguruko testigu bila dabil

Salatu duenez, senide batek atzetik joan eta ostikoz jo zuen behin baino gehiagotan, gizonezko batzuk lagundu zioten arte.

HERNANIKO emakume batek Kronikari salatu dio, 2004ko maiatzean senide baten erasoja zuela Nafar Kalean, Dori taberna inguru horretan. Kalean zijoala, gaztea atzetik etorri eta ostikoka ekin zion, inguruan zeuden gizonezko batzuk joan eta lagundu zioten arte. Emakumeak Kronikari azaldu dio hanketan arazoak dituela geroztik, eta eraso horretako testigu bila dabil denuntzia-

rekin aurrera egin ahal izateko. Badaki adineko bat eta gazte bat izan zirela lagundu ziotenak, eta inguruan jende gehiago bazela, baina, herio hartan ingurukoak nortzuk ziren ez zuela gogoan hartu esan dio Kronikari. Eraso horren testigu izan litezkeen Hernaniko udaltzaingora jo lezakete.

Erasoaren inguruan, emakume honek salatu du ez dela senide honek erasotzen duen

lehenengo pertsona "amankomunean dugun beste hirugarren bat ere jipoitu izan du".

Babesik eza

Emakumeak salatu du horrelako erasoaren aurrean babesik gabe sentitu dela bera. "Ertzaintzan eta juzkatuetan ibili naiz baina, ez dut babesik aurkitu ez batean eta ez bestean". Erasotzaileak egin lezakeenaren beldurra ere baduela salatu du emakumeak. **II**

Diputazioko aurrekontuetan bonobusa sortzeko diru partidak onartu dira

Aralar alderdiak jakitera eman du hernaniarrentzat interesgarri diren bi diru partida biltzen direla bonobusaren inguruan.

HERNANIKO Kronikara bidalitako prentsa ohar batean Aralarrek bonobusaren inguruan Diputazioko 2006ko aurrekontuetan erabakitakoa- ren berri eman du. Aralarren hitzetan bonobusaren inguruko bi partida biltzen ditu aurrekontuak, hernaniarrentzat interesgarriak direnak:
- Batetik, foru sareko autobus zerbitzuetan 200.000 euroko diru partida sortu da, bonobus sistema jartzeko. Herri arteko sarea da hau eta Hernani eta Donostia arteko komunikazioa hor sartuko litzateke.
- Bestetik, foru eta udal sare- en arteko txartel bakarra bul-

tzatze 100.000 euroko diru partida sortuko da eta horrek posible egingo luke txartel bakarrarekin joan ahal izatea Hernanitik Donostiarako edozein auzotara.

ARALAR:

"Aralarren ekimenez Gipuzkoako aurrekontuetan hernaniarrek aspalditik aldarrikatutako bonobus sistema sortzeko diru partida jasotzen da"

Aralarren ekimenez

Bi partida hauek Batzar Nagusietan Aralarrek aurkeztutako zuzenketa batzuen ondorioz lortu ziren, alderdiak berak nabarmendu duenez. Hala

ere, Aralarrek nabarmendu du aurrekontuen kontra bozkatu dutela berak "gai sozialetan gutxieneko adostasunik ez baitugu lortu".

Jarraipen estua

"Bi partida horiekin lortu dugu behintzat Gipuzkoako aurrekontuetan garraio publikoaren aldeko apustu garbia agertzea" dio alderdi abertzaleak. Hala ere, azpimarratu du gauza bat dela diru partida aurrekontuetan agertzea "eta bestea martxan jartzea". Lehenbailehen martxan jartzeko indarra egin eta jarraipen estua egiteko konpromezua hartu du Aralarrek. **II**

❖ BERTSO LATA

Irazu eta Mendiluze bihar Zumardin

Bertso Lata aurrera dijoa eta bihar Jexuxmari Irazu eta Aitor Mendiluze entzuteko aukera izango da Zumardi jatetxean, afal ondoan. Afari txartelen bat oraindik bada salgai Tripontzi eta Oindi tabernetan, 20 eurotan. Bestalde aurtengo azken saioa urte zaharretako erronda izango da, Ohitura Zaharrak abesbatzaren eskutik. Irten nahi duenak 17:15etan du zita Gudarien plazan. **II**

❖ GAZTE TXOKOA

Bihar Txuri Urdinera patinatzeraz

Gazte Txokotik Txuri Urdinera joatekoak dira bihar patinatzeraz. Prezioa 6 eurokoa du biharko irteerak. Gaur, berriz, zinea izango dute. **II**

❖ KONTSUMO ARDURATSUA

Jolasak gaur kiroldegiko jangelan

Kontsumo arduratsuaren inguruko jolasak izango dira gaur eta bihar kiroldegiko jangelan Artelatx taldearen eskutik, Udaleko Ingurugiro zerbitzuak antolatuta. Tribial moduko bat egingo dute eta kontsumoari buruzko galderak eta frogak izango dituzte pasatzeko. Izen ematea ikastetxeetan egingo dago. Lehen eguna atzo izan zen eta gaur ere ordutegi bera du, goizeko 11:00etatik 13:00etara. **II**

❖ OLIO BILTZEA

Gaur olio biltzea Urbietan kalean eta Ereñotzun

Gaur da olio eta gai bereziak biltzeko eguna, 16:00etatik 16:20etara Ereñotzun eta 16:30etatik 19:00etara Urbietan kalean. **II**

❖ UR MIA ELKARTEA

Tokatu dena 'El Niño'rako

Ur Mia Elkarteko loterian botatakoa tokatu da eta bazkideei dagokiena *El Niño*ko loteria erosteko erabiliko dute, 67.540 zenbakian. **II**

❖ ITURRITXO ELKARTEA

Eskulan eta jokoak gaur eta bihar auzo elkarteko lokalean

Iturritxo auzo elkartean eskulanak eta jolas egiteko aukera izango dute gazteek gaur eta bihar goizean, 10:30etatik 12:30etara, elkarteko bulegoan bertan. **II**

◆ ERREMONTA

Ezkurak arantza atera nahiko du gaur Zeberio IIaren aurka

Ezkurra eta Aizpuru Zeberio II eta Eizagirreren aurka ariko dira gaur Galarretan, arratsaldeko 16:00etan hasiko den jaialdiko partidua estelarrean. Joan den astelehenean Labriten erraz irabazi zion Zeberio Ezkurrari eta doneztebearrak orduko arantza atera nahiko du gaur. Jaialdiko beste partidua: Zalakain-Astibia/Larrea-Gaztelu, Altuna II-Urko/Iñigo-A. Lekunberri, eta Altuna I-Agirrezabala/Juaristi-Auzmendi. **II**

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Etxea salgai Ereñotzun. 3 gela, sala, sukaldea eta komuna. Orain dela 5 urte berritua. Deitu: 650 04 03 16

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Etxea salgai Gudarien plazan. Deitu 13:30etatik 15:30etara. 679 10 75 06.

2006ko Egutegia

Prezioa: 3,00 €

Salgai ohiko tokietan

Kronika, Dobera, Sebas, Irurategolena, Leokadisti, Plaza Berri, Zinko-ena, Konde, Dorronsora, Bikain, eta Antziola okindegian.

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

kronika